

_ekolurra:

Bertako betiko nekazal ekoizpen ekologikoarentzat aurrerapausua



**Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua**
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

EKOLURRAREN HASTAPENA:

2018 urtean, Kontseiluaren bokal talde berriak, kontseiluak ordura arte jarraitutako komunikazio estrategia berraztertzeko lana hartu zuen. Hausnarketa hartan ondorioztatu zen gizarteak orokorrean ez zuela bertako nekazaritza ekologikoa identifikatzeko irudi eta izen argi bat. Aditu talde bati hau konpontzea eskatu zitzaion eta hortik Ekolurra marka proposamena sortu zen.



Proposamen hau sektorearekin partekatu zen eta jasotako erantzunean nabarmendu zen identitatea baino nortasunaren lanketa bat beharrezkoagoa ikusten zela momentu hartan. Gogoratu behar dugu sektore ekologikoa oso azkar hasten ari zela urte haietan eta kanpotik ekarritako elikagai ekologikoen merkaturatzea normalizatzen ari zela azalera handiko banatzaileen eskutik. Gainera, ekoizle eta elkarte batzuen iritzia zen Euskadin dauden bestelako kalitate bereizgarrien gurgpilean sartzea zela, eta hau ere ez zen begi onez ikusten.

Beraz, marka kontzeptutik haratago, Ekolurra nortasuna garatzeari ekin zion kontseiluak.

Baina ordurako 2020 urtea zen eta pandemia egoera ezarri zen udaberri horretan. Hurrengo bi urteetan, nahi baino eragileen presentzia edo hartu eman fisiko txikiagoarekin garatu zen proiektua: Ekolurra produktuen ezaugarriak definitu eta araudi batean idatzi ziren; araudia dinamikoa izateko eta ezaugarriak gehitu edota aldatzeko prozedura ezarri zen; bereizgarria produktuetan erabiltzeko eragileek jaso beharreko baimenak nola eman eta denboran nola mantendu ere proposatu ziren.

Prozesu honetan nabarmendu den zailtasuna, erpin desberdinen arteko oreka egoki bat bilatzea izan da: kontseiluaren izaera publikoa; eragileen errolda irekia eta anitza; bestelako kalitate bereizgarri ofizialen presentzia; bertako ekoizpen ereduaren nortasuna; agroekologia eta ekoizle elkarteetan martxan diren bestelako dinamikak, etab.

Momentu honetako erronkak dira: proiektua eragileen artean zabaltzea; izan daitezkeen zalantzak eta ezjakintasunak argitzea; hasierako urratsetan zenbait ekoizleren artean proposamenak sortutako mesfidantzari aurre egitea; eta erabilera baimenak berriztatzeke ziurtapen sistema parte hartzailea garatzea.

Ekolurra proiektuaren ekarpenak dira, besteak beste: Nekazaritza ekologikoa Europar Batasuneko zigilu ofizialaren oinarritik haratago eramatea; jatorri eta kalitate balio osagarriak dituen elikagai ekologikoa bistaritzea; merkaturatze bide laburretan ari diren ekoizpen proiektuei laguntzea; kontsumitzaileei bertako ekoizpen ekologikoa aurkitzeko eta erosteko erosotasun gehiago ematea.



NOLA AURKEZTU EKOLURRA ELIKAGAI EKOLOGIKOA?

EKOLURRA hemengo elikagai ekologikoa da, lurraldeari estuki lotua, Kontseiluak ziurtatutako Europar Batasunaren zigilu ekologiko ofiziala duena, eta, gainera, elikagaiari berezko izaera ematen dioten balio osagarriak biltzen dituena.

Balio osagarri horiek araututako eskakizun gisa jaso dira Ekolurra araudian. Hauen proposamena eta azterketa kontseiluan izena eman duten eragileek egin dute, ekoizpen eredu ekologikoan eskarmentua, eta teknika tradizionalen, eta kalitate handiko elikagaien ekoizpenean ezagutza duten nekazari, abeltzain eta elaboratzaile profesionalek.

ENEK-Ekolurra

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua erakunde ofiziala izanik izena bere euskarazko akronimotik hartzen du, ENEK. Kontseilua lagunartean aipatzerakoan ENEK izen ofizialari Ekolurra hitza gehitu zaio, kontseiluaren bereizgarri gomendatua dela adierazteko



OINARRIA ZIURTATUTAKO EKOIZPEN EREDU EKOLOGIKOA

Ekolurraren oinarria noski Europar Batasuneko (EB) Nekazaritza ekologikoaren etiketatu araudia da. Hor daude ezarrita elikagaien merkaturatzean eko aipamenak eta Europar Batasuneko logoa erabiltzeko gutxieneko baldintzak. Landaketek zein animalia hazkuntza sistemek bete beharreko gutxienekoak, baina baita kontsumitzaileei berme osoa emateko bete beharreko derrigorrezko kontrolak eta ziurtapen sistema.

Europar errealitate ezberdin asko daude ordea, eta EBko araudia gurera egokitu nahi izan da. Araudi hori abiapuntu hartuta, zenbait puntu gehitu dira, baita aurrez finkatutako batzuk gehiago zehaztu ere.



Beraz Ekolurra ez da EBko araudiaren bikoizketa edo kompetentzia, bereizgarri osagarria baizik. Ekolurraren logotipoan bertan ikus daiteke hori: Europako hostoari ondoan bere marka erantsi zaio.

LURRALDE TASUNA ERDIGUNEAN

Euskal Autonomia Erkidegoa da ENEEK-Ekolorra-k lan egiten duen lurraldea, eta bertako nekazari eta abeltzainen artean ekoizpen ekologikoa indartzea da Ekolorra bereizgarriaren helburua.



“Tokiko nekazaritza-ekoizpen ekologikoa bultzatu nahi dugu, eta bertako ekoizleei eta nekazaritza ekologikoan ekoiztutako elikagaiei berezko duten balioa eman”.

Arantza Eguskiza, sagardogilea,
Juntakidea 2018-2023

“Tokian tokiko produktuek berebiziko garrantzia dute Ekolorran; horregatik, produktuak bertan ekoiztu eta eraldatu behar dira. Ekolorra bertako produktuen aldeko apustua da, tokiko merkatuari zuzendua merkaturatzeko zirkuitu laburretara egokitua”.

Urdaspal Alberdi, baratzezaina, eta Jose Ramon Arrieta, artzaina. Jutakideak 2018-2023

Nekazaritza ekologikoak orokorrean bere oinarrian badu lurraldearekiko lotura, helburuetako bat tokiko baliabideak erabiltzea eta zaintzea da, landareak lurlean bertan ekoiztu behar dira, hidroponiko sistemarik gabe, edota abeltzaintzan animalien bazkaren gutxieneko bat lurraldean bertan ekoiztu behar da, dena kanpotik ekarri gabe.

Ekolorra bereizgarriaren kasuan lurraldearekiko lotura hau oraindik gehiago sendotzeko beste ezaugarri batzuk gehitu zaizkio, besteak beste: abere hazkuntzan bertako amen ugalketa bultzatzea, horregatik bereizgarria soilik bertan jaiotako animalien ekoizpenak izan dezake, edota ardi arrazen kasuan adibidez, Latxara eta Karrantzara mugatu dira; nekazaritzaren kasuan bertako hazi eta landareen

ugalketa bultzatzea, horrela, ortugintzan soilik hemengo mintegi-landarea onartzen da, edota sagardo-sail berrietan barietate tradizionalak erabiltzeko betebeharra ezarri da; elikagaien elaborazioaren kasuan, lehengaien gutxieneko bat hemen ekoiztua izatea, noski ekoizpen errealitatearen arabera, orokorrean %50 bada ogian adibidez %5 da; eta merkaturatze lanen kasuan, tokian tokiko elikadura sistemak hornitzen saiatzeko gomendioa egiten da.

EKOIZPEN ESKAKIZUN GEHIGARRIAK

Ekolurra erabili ahal izateko lehenik elikagaiak EBko zigilua izan behar du, baina horrez gain, ekoizpen-eskakizun berriak gehitu dira:

- EB-ren araudi ekologikoan jasota egon arren, gure errealitatean zorrotzagoak direnak, adibidez aipatu bezala ardi kasuan Latxa eta Karrantzana arrazetara mugatu da
- EB-ren araudi ekologikoan jasota egon arren, interpretazio zabalekoak izanik, geurean zehatzago definitu direnak, adibidez abereen kasuan, bazkaren ehuneko handi bat lurraldean ekoiztua izan behar dela esaten da baina ez da eremu geografikoa mugatzen eta kontseiluak 150km-ko eremua ezarri du.
- Ekoizpen-teknikekin zuzeneko loturarik ez dutelako EB-ren araudi ekologikoan jaso ez direnak, adibidez ontziraketa materialekin, edota hondakinen kudeaketarekin zerikusi dutenak.
- Kalitate- eta nutrizio-irizpideak gehitzen dituzten eskakizunak, adibidez uztak jasotzeko tekniketari mugak ezarri dira, iraungitze data kalitate ikuspuntutik mugatu dira eztiaren kasuan, etab.
- Ekolurra araudian gomendio gisa eskakizun berriak gehitu dira, sektorearen errealitatea kontuan izanda, besteak beste: merkaturatze bide laburren erabilera bultzatzeko; baliabide naturalen inguruan formakuntza bultzatzeko; ontziratze eta enbalajeen minimalismoa bultzatzeko; abeletxeetan ugalketa jarduera indartzeko edota antiparasitarioen erabilera mugatzeko.

“Ekolurra ez da soilik elikagai ekologikoen eskaintza orokorretik bereizten laguntzen digun jatorri marka bat, azken hamarkadetan bertoko nekazal ekoizpen ekologikoak, ekologia eta kalitatearekiko erakutsi duen konpromisoa ere jasotzen du”.

Xabier Lejarzegi, Kontseiluko zuzendaria.



EKOLURRA ZIGILUAK DAKARTZAN ONURAK

Ekolurrak gero eta globalizatuagoa den merkatu batean lehiatzeko, bertakoa babestu eta ikusarazteko eta lurraldeko zapore naturalak bilatzen dituzten kontsumitzaileen arreta erakartzeko balio du.

Bertako elikagai ekologikoak bultzatuko dituen Ekolurra bereizgarriarekin bat egitean, hainbat onura lor daitezke:

“Ekolurrak lehen begiradan elikagaia bertako ekologikoa dela identifikatzen lagunduko dio kontsumitzaileari”.

Aitor Otegi, erlezaina eta Juntakidea 2028-2023

- 1. Balio erantsia:** balio ekologikoak eta bertakotasunekoak atxikitzen zaizkion bereizgarriarekin bat egitean, norberaren elikagaiari ere balio horiek eransten zaizkio.
- 2. Elikagaiaren errekonozimendua:** bereizgarriak elikagaiaren ikusgarritasuna eta kontsumitzaileen aitortpena areagotu dezake. Elikagai ekologiko eta jasangarriak bilatzen dituzten kontsumitzaileek Ekolurra ezagutzean zuzenean bereizgarri hau duten elikagaiak bilatuko dituzte, eta zure elikagaia merkatuan errazago identifikatuko dute. Horrek salmentak handitu ditzake.
- 3. Banaketa-kanal berrietarako sarbidea:** bereizgarri komun baten pean beste ekoizle ekologiko batzuekin elkartzean, banaketa-kanal berriak sortu daitezke.

Laburbilduz, bertako elikagai ekologikoak sustatuko dituen Ekolurra bereizgarriarekin bat egitean elikagaiaren identifikazioan, errekonozimenduan, balio erantsian, banaketa-kanal berrietarako sarbidean, beste ekoizle batzuekiko lankidetzan eta bezeroen fidelizazioan ere onurak lortu daitezke.



EKOIZLEA PROTAGONISTA

Ekoizleak berak izan behar du bere elikagaien atzean dagoen protagonista. Horregatik, Ekolurra zigilua ez zaio inoiz ekoizlearen izenari edo markari gainjarriko, harenak izango baitu lehentasuna.

Baina Ekolurra ez da edonolako marken pean joango; ez dute erabiliko inportazio- edo merkaturatze-enpresek, eta ez da inoiz marka zuri batean erabiliko.

Ekolurra araudian ezarritako eskakizunak dinamikoak izateko eta sektoreak aurrera egin dezan, arreta berezia eskaini zaio sektoreak betekizun horiek proposatu, onartu eta aldatzeko duen moduari: aldaketa-proposamenak Kontseiluak deituriko bilera irekietara bertaratutako eragileen gehiengo soilez erabakitzen dira; geroago, proposamen horiek balioetsi egiten ditu Kontseiluaren zerbitzu teknikoak, eta eroldaren erdiak

baino gehiagok baldintza hori bete dezakeen aztertzen da, eta, hala bada, aurrera egiten da; aldaketen berri eman eta urtebeteko epea izaten dute ekoizleek baldintza horietara egokitzeko.

Ekolurra bereizgarria erabiltzeko ekoizleak aipaturiko betekizunak bete eta kontseiluaren urtebeteko baimena lortu behar du. Honetarako bere buruari autokontrola egin behar dio eta erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du. Auto ebaluazioa hauek zalantzak sortzen dituzten kasuetan kontseiluko teknikariek egiaztatuko dituzte eta emaitzekin, ekoizleek osatutako batzorde batek erabakiko du Ekolurraren erabilera baimena berriztatu edota etetea.

Ezarritako eskakizun eta prozedura guzti hauetan ekoizlearen parte-hartzea nabarmentzen da.



NOLA ESKURATU DAITEKE ZIGILUA?

Behin ekologikoan ziurtatuta egotean Ekolurra zigilua erabiltzeko aukeraren eskaria Kontseiluan aurkeztu beharra dago. Ekolurra zigiluaren inguruko informazioa www.ekolurra.eus webgunean dago eskuragarri. Horrez gain, Kontseiluaren bulegora deituta ([94 627 15 93](tel:946271593)) edo helbide elektronikora (sustatu@ekolurra.eus) idatzita ere galdetu daiteke informazioa.

Behin bereizgarria erabiltzeko baimena eskuratuta, etiketetan Ekolurra bereizgarria jarri ahalko da eta azoketako postuetan jartzeko Ekolurra oholak banatzen dira. Dendetan, berriz, Ekolurra daramaten euskarri propioak ere erabil daitezke.